

## MENDI 2019ko SAIL OFIZIALEAN IZENA EMATEKO ARAUDI ETA PROZEDURA

Mendi Film Festival (MFF) jaialdiaren 12. edizioa Bilbon ospatuko da 2019ko abenduaren 6tik 15era eta Mendi Film Festival Kultur Elkarteak antolatuko du.

MENDI FILM FESTIVAL, mendia, abentura eta muturreko kirolei buruzko film eta dokumentalen Nazioarteko Zinemaldia, [International Alliance for Mountain Film](#) erakundearen kide da 2011z gerotzik.

### BALDINTZA OROKORRAK

- Mendiarekin erlazionatuta dauden gaiak jorratzen dituzten filmek parte hartu ahal izango dute: alpinismoa, eskalada, abentura eta mendi kirolak, eskia, muturreko kirolak, ekologia, ingurumena, etnografia...
- 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ekoiztutako lanek baino ezin izango dute parte hartu edizio honetan.
- Parte-hartzaile bakoitzak film bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du, baina bakoitzarekin dagokion izen-emate orria betetzea ezinbesteko baldintza da.
- Hautaketa Batzordeak hautatu eta programatuko ditu lehiaketarako filmak. Jaialdiaren zuzendaritzak programazioa aldatzeko eskubidea du.
- Parte-hartzaileak aurkeztu duen lanaren jabetza intelektualaren eskubideak bereak direla ziurtatzen du. Aldi berean, egileak bermatzen du Mendi Film Festival jaialdiak ez duela lan hori jendaurrean erakusteko inolako eragozpenik (ez legezko, ez kontratuzko, ez bestelakorik). Era berean, aurkeztutako lanean agertzen diren osagai eta elementuen (musika, irudiak, grafismoa, etab.) eskubideen jabe diren pertsona edo erakundeek eman beharreko baimenak badituela ziurtatzen du. Izena ematen duen horrek, egile-eskubide alorrean bitartekoek egin ditzaketen erreklamazioen aurrean, Mendi Film Festival jaialdiaren antolakuntzak kalterik ez izateko konpromisoa hartzen du.

### IZEN-EMATEAK – EPE MUGA: 2019ko IRAILAK 15

- Izen-ematea zuzendari, ekoizle edo haien legezko ordezkariak gauzatuko dute.
- Mendi Film Festival jaialdiaren 12. edizioan izena ematea doakoa da.
- Izen-ematean honako elementu hauek jasoko dira: izena emateko inprimakia, sustapenerako materiala eta ekoizleek egokitzen duten filmari buruzko informazio osagarri oro.
- Hautaketarako kalitate handiko artxibo digitalak onartuko dira eta honako euskarri elektronikotan aurkeztu ahalko dira: Mendi Film Festival jaialdiaren FTPan edota artxibo pisutsuak bidaltzeko plataformetan ([www.wetransfer.com](http://www.wetransfer.com) eta gisakoak). Horretarako, helbide honetara igorri artxiboak: [submission@mendifilmfestival.com](mailto:submission@mendifilmfestival.com).
- Aurkeztutako lan ororekin, jatorrizko bertsioaren hizkuntza edozein dela ere, **nahitaez aurkeztu behar da ingelesezko azpitu-tituluaren artxiboa (.srt) edota denbora kodeak dituen hizketen zerrenda ingelesez.**
- Izena emateko epea 2019ko maiatzaren 1etik irailaren 15era egongo da zabalik. Beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aipatutako epean bidali beharko da ondorengo helbide elektronikora: [submission@mendifilmfestival.com](mailto:submission@mendifilmfestival.com). Beste aukera bat zuzendaritzaren izenean jaialdiko helbidera bidaltzea da: BILBAO MENDI FILM FESTIVAL. Zabalguneko Eraikina, Zabalguneko Plaza 11 - 48009 Bilbo (Bizkaia).
- Parte-hartzaileak baimena ematen du lehiaketara aurkeztutako obren zatiak telebistan, zineman nahiz interneten erabiltzeko, jaialdiaren sustapenerako den heinean.
- Lana onartuz gero, aurretiko hautaketarako kopiak Mendi Film Festival jaialdiaren artxibo historikoen parte bilakatuko dira. Kopia horiek barne-kontsultak egiteko eta zinemaldiaren sustapenerako baino ezin izango dira erabili. Beste edozertarako erabili nahi izanez gero, zinemaldia harremanetan jarriko da egilearekin edo eskubideen jabearekin.

## BALDINTZA TEKNIKOAK

Finalista gisa hautatu diren masterrak honako ezaugarriak betetzen dituzten artxibo digitalean aurkeztu beharko dira:

Codec bideoa: H264 / Bit rate bideoa: 20Mbps / Frame size: 1920 x 1080

Audio MPEG-4 stereo, 48kHz, 128 kbps

Filmak postaz bidaliz gero (USB flash unitatea; HDD disko gogor eramangarria; SD txartela), antolakuntzak ez du bidaltze edo aduana gastuen ardura hartuko.

## SUSTAPENERAKO MATERIALA

Izen-emate oro filmaren hiru irudirekin batera bidali beharko dira. Irudi horiek erreproduzitu, argitaratu edo erakutsi ahalko dira, jaialdiaren sustapenerako den heinean.

Argazkiak entregatzeko baldintzak:

- Formatua: JPEG edo PNG
- Gutxieneko bereizmena: 3500x2000 edo handiagoa
- Gehieneko tamaina: 5000kB

Argazkiekin batera bidali beharko dira filmaren izenburua, kokalekua eta autorearen kredituak. Hautatutako lanen argazkiak Mendi Film Festival jaialdiaren artxiboetan gordeko dira.

“Press Kit” eta zuzendariaren curriculuma gehitu behar da.

## SARIAK

Zinemaldiaren zuzendaritzak bost kidez osatutako Nazioarteko Epaimahaia izendatuko du. Halaber, Idazkari bat hautatuko du eta deliberazioan parte hartu ahal izango badu ere, ez du boto eskubiderik izango.

Nazioarteko Epaimahaiak, zinemaldiaren zuzendaritzarekin batera, barne-araudia ezarriko du. Epaimahaiaren erabakia ezeztazina izango da. Honako sari hauek banatuko dituzte:

- Sari Nagusia: “Eguzkilorre” garaikurra eta 6.000 euro\*
- Zuzendari Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 3.000 euro\*
- Gidoi Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 2.000 euro\*
- Argazkilaritza Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 2.000 euro\*
- Epaimahaiaren Saria: “Eguzkilorre” garaikurra eta 2.000 euro\*
- Mendiko Film Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 1.500 euro\*
- Eskaladako Film Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 1.500 euro\*
- Kultura eta Natura Film Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 1.500 euro\*
- Kirol eta Abentura Film Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 1.500 euro\*
- Film Labor Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 1.000 euro\*
- Euskarazko Film Okena: “Eguzkilorre” garaikurra eta 1.000 euro\*
- Ikusleen saria: “Eguzkilorre” garaikurra

\*Sarien zenbateko gordinei indarrean dagoen zerga-araudia ezarriko zaie.

Epaimahai Ofizialak ohorezko aipamenak egin ditzake kategoria bakoitzean.

Parte-hartzaileak sarituak izanez gero, beren lanak MFF zinemaldiarekin elkarlanean diharduten beste jaialdi edo erakustaldi batzuetan proiektatuak izan daitezkeela jakin eta onartzen dute; betiere irabazi-asmorik gabe eta aurrez horren berri emanda.

Araudi honetan aipatu ez den edozein egoera Mendi Film Festival jaialdiaren 12. edizioaren antolakuntzak konponduko du, ikus-entzunezko jaialdien eskubide, erabilera eta ohiturekin loturiko printzipio orokorrak errespetatuz.

Zuzendari, ekoizle edo legezko ordezkariak izen-emate orrian sinatu izanak araudi honen baldintzak onartzea dakar berekin.

Araudi honen interpretazioa eta gauzatzea zinemaldiaren antolakuntzari baizik ez dagokio.

### **JAIALDIAREKIN GOZA EZAZU BILBON**

Finalistak jaialdira etorri eta hartaz disfrutatzen gonbidatzen ditugu eta, aldi berean, mendiko eta *outdoor* munduko zuzendari eta ordezkari garrantzitsuenetarikoekin elkartzeko aukera hobeezina eskaintzen zaie.

Gonbidatu bereziak direnez, finalistek ondokoa edukiko dute:

- Programazio ofizialean egoteko bi pase
- Jaialdiko aurkezpenetarako eta ekitaldi sozialetarako bi pase
- Bi gau hotelean<sup>(1)</sup>
- Gure antzokietan ospatuko den jendaurreko emanaldian bere filma aurkezteko gonbidapena

(1) EAEko biztanleei hotel gau bat eskaintzen zaie

### **IKUSLE BERRIAK – MENDI TOUR 2020**

Mendi Film Festival jaialdian izena ematen duten film guztiak hartuko dira kontuan Mendi Tourrean zeinek parte hartuko duen erabakitze orduan. Zure filma hautatzen badugu, zurekin harremanetan jarriko gara dagozkion baimenak (*royalties* barne) gauzatzeko.

## 2018ko SARIAK

**SARI NAGUSIA** "Eguzkimore" garaikurra eta 6.000€

*BECOMING WHO I WAS*, Hego Korea 2016

Zuzendariak: Moon Chang-Yong & Jin Jeon

**ZUZENDARI ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 3.000€

ARŪNAS MATELIS. *WONDERFUL LOSERS, A DIFFERENT WORLD*, Lituania 2017

**GIDOI ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 2.000€

*RUNNERS*, Polonia 2017

Zuzendaritza eta Gidoia: Lukasz Borowski

**ARGAZKILARITZA ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 2.000€

*FREE SOLO*, AEB 2018

Zuzendariak: Elizabeth Chai Vasarhelyi & Jimmy Chin

Argazkilaritza: Jimmy Chin & Matt Clegg & Clair Popkin

**EPAIMAHAIAREN SARIA** "Eguzkimore" garaikurra eta 2.000€

*THE DAWN WALL*, Austria 2018

Zuzendariak: Josh Lowell & Peter Mortimer

**MENDIKO FILM ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 1.500€

*EVEREST GREEN*, Frantzia 2017

Zuzendaria: Jean-Michel Jorda

**ESKALADAKO FILM ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 1.500€

*LEZENÍ NA PÍSKU - SEDMDESÁTÁ LÉTA / SAND CLIMBING - THE SEVENTIES*, Txekiar Errepublika 2017

Zuzendaria: Karel Višek

**KULTURA ETA NATURA FILM ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 1.500€

*BAYANDALAI – LORD OF THE TAIGA*, Espainia 2018

Zuzendariak: Pablo Vidal Santos & Aner Etxebarria Moral

**KIROL ETA ABENTURA FILM ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 1.500€

*THE WEIGHT OF WATER*, AEB 2018

Zuzendaria: Michael Brown

**FILM LABUR ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 1.000€

*VIACRUXIS*, Espainia 2018

Zuzendaria: Ignasi López

**EUSKARAZKO FILM ONENA** "Eguzkimore" garaikurra eta 1.000€

*PASTOREAK*, Espainia 2018

Zuzendaria: Eukeni Arriortua

**IKUSLEEN SARIA** "Eguzkimore" garaikurra

*FREE SOLO*, AEB 2018

Zuzendariak: Elizabeth Chai Vasarhelyi & Jimmy Chin

## 2018ko EPAIMAHAIKIDEAK

**Aldo Audisio.** Italia. Torinoko Museo della Montagnako zuzendaria 1978tik 2018ra. IAMFko sortzaile eta koordinatzaileetako bat 2000. urtetik 2018ra arte.

**Emi Ueyama.** Japonia. Tokyo International Film Festivaleko aurre-hautaketa saileko programatzailea. ARTicle Films ekoiztetxearen sortzailea.

**Suzan Beraza.** AEB. Tellurideko (Colorado, AEB) Mountainfilm Festivaleko zuzendaria.

**Jim Herrington.** AEB. Argazkilaria, hainbat pertsona ospetsu erretratatu ditu: Benny Goodman, The Rolling Stones, Morgan Freeman, Dolly Parton...

**Juanjo San Sebastián.** Espainia. Espezialista eta kameraria mendiko espedizioetan, gidolaria eta dokumentalen egilea.